

Consejo Escolar de Navarra
Junta Superior de Educación



Nafarroako Eskola Kontseilua
Hezkuntzako Batzorde Nagusia

9/2014 Irizpena

Ondoko zirriborroaren gainean: Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, pribatuetan eta pribatu itunduetan Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleak ebaluatu eta hurrengo mailara pasatzeko arauak ezartzen dituen foru agindua.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkurak 2014ko uztailaren 3an onetsia

<p>Pedro González Felipe jn. Kontseiluburua</p> <p>Ignacio Iriarte Aristu jn. Idazkaria</p> <p>Santiago Álvarez Folgueras jn. Guraso elkarteen federazioetako ordezkaria (HERRIKOA)</p> <p>José Luis Asín Buñuel jn. Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria</p> <p>Marcelino Azcoiti Alonso jn. Toki entitateetako ordezkaria</p> <p>Pedro María Baile Torrea jn. Guraso elkarteen federazioetako ordezkaria (CONCAPA)</p> <p>Fernando Barainca Lagos jn. Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)</p> <p>Iñaki Berasategi Zurutuza jn. Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (LAB)</p> <p>Aurora Bernal Martínez de Soria and. Unibertsitateetako ordezkaria (Nafarroako Unibertsitatea)</p> <p>Camino Bueno Zamarbide and. Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria</p> <p>Ernesto Delas Villanueva jn. Guraso elkarteen federazioen ordezkaria (SORTZEN)</p> <p>Jesús M^a Ezponda Iradier jn. Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria</p> <p>Francisco José Flores jn. Enpresarien elkarrekin ordezkaria</p> <p>Maximino Gómez Serrano jn. Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria</p> <p>Carmen M^a González García andrea Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria</p> <p>David Herreros Sota jn. Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria</p> <p>Iñigo Huarte Huarte jn. Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria</p>	<p style="text-align: center;">9/2014 Irizpena</p> <p>2014ko uztailaren 3ko Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkuran parte hartu zuten ondoan aipatu ditugun lagunek. Bertan irizpena eman zen, aldeko 14 botorekin, kontrako 5 botorekin eta abstentzio 1ekin, ondoko egitasmoaren gainean: Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, pribatuetan eta pribatu itunduetan Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleak ebaluatu eta hurrengo mailara pasatzeko arauak ezartzen dituen foru agindua.</p> <p>1 - ARAU AURREKARIAK.</p> <p style="text-align: center;">Hezkuntzaren Kalitatea</p> <p>Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak¹ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa² aldatu du. Besteak beste, aldaketa garrantzitsuak egin ditu Lehen Hezkuntzako curriculumen egiturari, bai eta ikasleen ebaluazioari buruzko alderdi batzuetan ere.</p> <p style="text-align: center;">Lehen Hezkuntzaren oinarrizko curriculumak</p> <p>Lehen Hezkuntzaren oinarrizko curriculumak ezartzen duen otsailaren 28ko 126/2014 Errege Dekretuak³, 2/2006 Lege Organikoaren garapena den aldetik, bere 12. artikuluan, ebaluazioari buruzko zenbait alderdi xedatzen ditu. Orobat, errege dekretu horren laugarren xedapen gehigarriak zehazten du zein diren ebaluatzeko agiri ofizialak eta zein den haien</p>
---	---

¹ Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa. LOMCE. (EAO, 295.a, 2013ko abenduaren 10ekoa).

² 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa. (EAO, 106.a, maiatzaren 4koa).

³ 126/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, Lehen Hezkuntzako oinarrizko curriculumak ezartzen duena (EAO, 52.a, 2014ko martxoaren 1ekoa).

<p>José Jorge Lanchas Rivero jn. Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)</p> <p>Lourdes Larunbe Arretxe and. Ikastetxeen administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkaria</p> <p>M^a Paz Murillo Urcelay and. Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FETE-UGT)</p> <p>Amilcar Quinatoa Quinatoa jn. Ikastetxe publikoetako ikasleen ordezkaria</p> <p>Paloma Virseda Chamorro and. Unibertsitateen ordezkaria (NUP)</p>	<p>gutxieneko osaera.</p> <p>Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duen foru dekretuak xedatzen du eskuarki nola arautu behar den hezkuntza horretan ikastetxe publikoetan, pribatuetan eta pribatu itunduetan aritzen diren ikasleak ebaluatzeko prozesua.</p> <p>Arau esparru horrek behartzen du xedapen berri bat garatzera Lehen Hezkuntzan ikastetxe publikoetan, pribatuetan eta pribatu itunduetan aritzen diren ikasleen ebaluazioa eta hurrengo mailarako pasatzea arautzeko. Horrek, jakina, Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 18ko 216/2007 Foru Agindua⁴ mailaz maila indargabetzea ekarriko du.</p>
--	---

2. FORU AGINDURAKO EGITASMOAREN DESKRIBAPENA

⁴ 216/2007 Foru Agindua, abenduaren 18koa, Lehen Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu eta mailaz igotzeko arauak ematen dituena (NAO, 10.a, 2008ko urtarrilaren 23koa).

Eskola Kontseiluaren irizpidepeko araurako egitasmoak hitzaurrea, hamalau artikulua, zazpi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu. Gainera, egitasmoak eranskin bat du, foru agindu honek araturiko ebaluazio agiriek izan beharreko ezaugarriak jasotzen dituen.

Hitzaurrean arau-erreferentziak aipatzen dira, Eskola Kontseiluaren irizpidepeko foru agindurako egitasmoaren testuan proposatutakoa justifikatzen dutenak.

1. artikulua. Arauaren xedea eta aplikazio esparrua zehazten ditu: Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, pribatuetan eta pribatu itunduetan Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleak ebaluatu eta hurrengo mailara pasatzeko arauak ezartzea.

2. artikulua. Ebaluazioaren ezaugarri orokorrak ezartzen ditu. Sei azpiataletan banaturik, Lehen Hezkuntzan ebaluazioak prestakuntzako izaera duela xedatzen du, izaera globala eta etengabea duela zehazten du, ebaluaziorako erreferentea curriculumeko oinarrizko gaitasunak izan behar direla dio eta irakasleei ikasleen ikaskuntza zein beren irakaslan ebaluatzeko agintzen die.

3. artikulua. Lau puntutan, zehazten du ebaluazio prozesuan zer ardura dagozkien arlo bakoitzeko irakasleei, irakasle taldeari eta taldeko tutoreari.

4. artikulua. Ikasturte hasieran ikasle guztiei hasierako ebaluazioa egiteko agintzen du.

5. artikulua. Ikasturtean zehar ebaluazio etengabearen eta azken ebaluazioaren prozesua arautzen du; besteak beste, ezartzen du zenbat saio egin behar diren (hiru gehi azkena) eta nola eta noiz jakinarazi familiei.

6. artikulua. Etapa honen hirugarren maila bukatzean ikasle guztiei eginen zaien banakako ebaluazio prozesua arautzen du.

7. artikulua. Etapa honen seigarren maila bukatzean ikasle guztiei eginen zaien banakako ebaluazio prozesua zehazten du.

8. artikulua. Ebaluazio prozesuetan erabiliko den kalifikazioen eskala finkatzen du.

9. artikulua. Esaten du nola kalkulatu den etapako batez besteko nota eta ikasleei ohorezko aipamenak ematen ahal zaizkiela.

10. artikulua. Bederatzi puntutan, hurrengo mailara edota etapara pasatzeko erabakia arautzen du.

11. artikulua. Hezkuntza sostenguko berariazko premiak dituzten ikasleei zuzenduriko aniztasunari erantzuteko prozesuak ezartzen ditu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua pertsonalizatzearen alde egiten du inklusio maila altuena kontuan izanik, eta neurriak zehazten ditu bi motatako ikasleendako, batetik, hezkuntza premia bereziak dituztenendako eta, bestetik, hezkuntza sisteman berandu sartzen direnendako.

12. artikulua. Ebaluazio prozesuko agiri ofizialak zein diren zehazten du.

13. artikulua. Ebaluazio agiriak betetzeari eta gordetzeari dagokionez dauden erantzukizunak zehazten ditu.

14. artikulua. Ikasleen lekualdatzeetan eman beharreko urratsak arautzen ditu.

Xedapen gehigarriak.

Lehenengoa. Esaten du Ikuskapen Zerbitzuari dagokiola ebaluazio prozesua gainbegiratzea.

Bigarrena. Ebaluazio agiriak baliabide elektronikoen bitartez betetzeko agintzen die ikastetxeei.

Hirugarrena. Erljioa eta Balio Sozial eta Zibikoak arloak ebaluatzeko modua zehazten du.

Laugarrena. Ikasleek ikasturtearen zati bat atzerrian ematen dutenean jarraitu beharreko prozedura arautzen du.

Bosgarrena. Aurrekoa bezalakoa, baina atzerriko egonaldia ikasturte osokoa denerako.

Seigarrena. Esaten du nahitaezkoa dela ikaslearen gurasoei etapa bukaeran ikasketen espedientea ematea eta, halaber, ikasleak ikasketak jarraituko dituen Bigarren Hezkuntzako ikastetxera haren kopia igortzea.

Zazpigarrena. Datu pertsonalen tratamenduan segurtasuna eta isilpekotasuna bermatzen ditu.

Xedapen iragankorrak.

Lehenengoa. Abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko egutegiaren egitura dela eta, 2014-2015 ikasturtean bigarren, laugarren eta seigarren ikasmailetako ebaluazioa 216/2007 Foru Aginduak ezarritako moduan egingen da.

Bigarrena. Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen zati bat LOEtik eratorritako curriculumaren arabera (LOMCEk hura aldatu aurretik) egin duten ikasleen kasuan batez besteko nota nola kalkulatu den zehazten du.

Xedapen indargabetzailea.

Bakarra. Martxoaren 19KO 216/2007 Foru Agindua indargabetzen du, Lehen Hezkuntzako irakaskuntzak osorik ezartzen direnetik aurrera.

Halaber, irizpen honen xede den testuaren aurka jotzen duten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak indargabetzen ditu.

Azken xedapenak.

Lehenengoa. Ezarpenaren egutegia agintzen du.

Bigarrena. Arauak noiz hartuko duen indarra esaten du.

3- BESTELAKO GAIK.

Eskola Kontseiluaren irizpidepeko foru agindurako zirriborroak eranskin bat du, foru agindu honek arauturiko ebaluazio agiriek izan beharreko ezaugarriak jasotzen dituen.

4.- IRADOKIZUNAK ETA OHARRAK

Eskola Kontseiluaren osoko bilkurak bidezko, komenigarri eta egokitzat jo du proposaturiko foru agindurako zirriborroa. Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, pribatuetan eta pribatu itunduetan Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleak ebaluatu eta hurrengo mailara pasatzeko arauak ezartzen dituen foru agindurako egitasmoa tramitatzearen aldeko irizpena eman du.

Nolanahi ere, onetsitako zuzenketetan aipatzen den bezala, ondoko aldaketak edo oharrak egitea iradokitzen du:

- 10. artikulua berridaztea eta honela uztea:
- 7. Ikasleak hurrengo mailara pasatzen ahalko dira baldin eta hiru irakasgai edo gutxiago baldin badituzte gainditu gabe, betiere haietako bi ez badira Gaztelania eta Literatura eta Matematika, edozein hizkuntza-eredutan, edo Euskara eta Literatura eta Matematika ez badira D ereduan. Edozein modutan ere, irakasle taldeak aztertu behar du barneratu gabeko edukiak traba diren edo ez diren hurrengo ikasmilian egoki egoteko.
- 4. orrialdeko 11-15. lerroetan, ondoko testua gehitzea:
- 5. artikulua. Ebaluazio etengabea eta azken ebaluazioa.
- 6. Ebaluazio saio bakoitza bukatutakoan, tutoreak idatziz jakinaraziko die gurasoei eta legezko ordezkariari zein den seme-alaben errendimendua, familiei igorri beharreko ebaluazio txostenaren bidez. Informazio hori, kurtso bakoitzean ikasle bakoitzaren gurasoekin edo legezko ordezkariekin banan-banan egin beharreko elkarrizketetan osatuko da. Beharrezkoak direnean egingen dira elkarrizketa horiek.

Iruñean, 2014ko uztailaren 3an


O. E.

Kontseiluburua

Pedro González Felipe

Idazkaria

Ignacio Iriarte Aristu

A handwritten signature in black ink, consisting of a large, stylized letter 'G' with a vertical line through it and a horizontal line extending to the right.

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZAKO KONTSEILARI JN.